

Euskararen transmisioa Zallan

Juanjo Zorrilla

Zalla BHI-ko Euskara irakasle ohia,
gaur egun Balmasedako LH-ko irakaslea

Alberto Mardones

Zalla BHI-ko Euskara irakaslea eta
Normalkuntzako arduraduna

1. ENKARTERRI

1.1. Sarrera

Mendebalde linguistikotik harago

Mendebalde linguistikotik harago, zer? Zer dago gure mapan, esaterako, Bonaparteren mapan? Bada, soil-soilik mendebalde geografikoa; hau da Enkartazioak edo Enkarterri izeneko eskualdea. Eta bertako berri ematera gatozkizu. Hainbat urteko eskarmentuak, han eta hemen ibilita, irakatsi digu ezen, gu, enkartauok edo enkarterriarrok, ez garela oso ezagunak leku euskaldunetan, badirudi nolabaiteko muga *psikologikoa* izan dela eta Euskal (kosmologia/kosmosa) Bilboraino zabaltzen zela sartaldetik.. Gure aldetik ere badago zeresan asko. Bertako zaharrek *ese es de la parte del vascuenze* eta holakoak esaten

zituzten euskaldunen baten jatorriaz azalpenak ematean. Elkarren-gandik, honen hurbilok izan eta honen urrun egon! Beraz, hona batu gaituen gaiari heldu baino lehen, gure eskualdeaz zenbait azalpen orokor eman beharrean aurkitzen garelako uste dugu. Lau zertzelada baino ez, hizpide dugun gaian zentratu ahal izateko, eta bide batez, gure egoera linguistikoa hobeto ulertzeko.

1.2. Lau zertzelada historiko

Euskal Herriko hiri handitik mendebalderantz, eta Burgos edo Kantabrian sartu aurretik badago eskualde bat 430 km² koa, eta berrogei mila urteko historia luzea duena. Enkarterrin bizi izan ziren lehen gizakien aztarnak Erdi-Paleolitokoak dira, hala ere, aztarnategi arkeologiko ugariak Goi-Paleolitokoak eta Epipaleolitokoak dira. Kalkolito Aroko eta Brontze Aroko hilobi-aztarnategitik ere franko dago. Adituek diotenez, eskualde hau oso aberatsa da arkeologia-aztarnategietan, baina orain arteko ikerkuntza ez da oso sistematikoa izan eta ikertzaileek aro zehatz batzuk baino ez dituzte jorratu buru-belarri, beste batzuk alboan utzita.

Lehen mendean, K.o., erromatarrek Pisoraca-Flaviobriga lotu zituen bidea zabaldu zuten. Bide honetatik, Flaviobrigan itsasoratzen zituzten euren merkantziak eta Meatzaldean ateratzen zuten burdina.

Garai haietan, nonbait, erromatarrek topo egin zuten kantabriarren eta karistiarren artean kokaturik bizi zen tribu batekin, hau da, autrigoiak. Autrigoiak lurralde historikoa, zaila da zehazten baina, egungo Kantabriako ekialdeak, Burgosko ipar-ekialdeak, Bizkaiko mendebaldeak, Arabako mendebaldeak eta Errioxako ipar-mendebaldeak osatuko zuten.

Inperio erromatarra ostendu ondoren, ekonomia, gizarte eta kultura arloko atzerakuntza handi-handia izan zen lurralde osoan. Prozesu horrek Enkarterrin ere izan zuen eragina, eta bertako biztanle

batzuk haitzuloetan bizi behar izan ziren berriro (horra hor Galdamesko Arenaza haitzuloa).

Kristautasuna zabaldu ahala, antzina nahiko sustraituak zeuden erritoak eta ohiturak ere aldatuz joan ziren. Horrela, bada, IX-XI. bitarteko mendeetan kristautasunaren aurreko tradizioko sinboloak azaltzen dira eta bat egiten dute kristautasunaren kultura ezartzen doan modu berriekin.

Enkarterriarrek apurka-apurka eraikiriko eliza xumeen ingurura bilatu zuten bizitoki, jende bilgune haiek egungo auzoen eta herrien sorburuak izan ziren. Herrixka haietan, zenbait leinu nabarmendu ziren. Geroago XIII. eta XIV. mendeetan, krisi ekonomiko latza zela eta, lehengo leinuak elkartu eta bandoak sortu zituzten borrokatzeko, ustiapen ekonomikorako eremuak elkarri kentzeko ahaleginetan. Pobreziak eta izurriteak jotako sasoi ilun hartakoak dira nobleek eta kapareek eraikitako dorretxeak. Adibide gisa, Muñatones-Salazar askazia dugu, bi mende eskasetan dorretxu apal bat zena ganorazko gotorleku nagusi bat bilakatu zuten bertakoek, era berean, burdina mea esportatzeko Muskizko S. Martin portu nagusia menperatzen zuten. XV. mendeko azken herenean, krisi ekonomikoa amaitu egin zenez, indarkeria ere desagertu egin zen.

XII. mendaren erdialdetik aurrera, Balmaseda, Lanestosa eta Portugalete hiribilduak sortu ziren. Hiribilduek zenbait pribilegioren truke bermatu eta bultzatu egiten zuten Gaztela-Europa arteko merkantzia eraman-ekarria. Merkataritza-zirkuitu honek Gaztelako artilea esportatzeaz gain, Enkarterriko burdina ere Europaratzeko balio izan zuen.

Encartaciones izena dela eta

Gaztelaniaz “*Encartación*” izena, jatorrizko hitz latino da, XII edo XIII. mendekoa, garai hartan latin klasikoa besteratzten ari baitzen.

Izena noizkoa den gauza sendoa izanda, esaera eztabaidatua da. Gehienek Bizkaiko Jaunak biztanleriari emandako pribilegio edo karta foraletik datorrela uste dute. Estanislao Jaime Labayruk, berriz, Gaztelako Juan I.ak Bizkaiko Jaunari emandako kartetatik datorrela esaten du. Besteek, inoren lurtzat hartuta, auzi-ihesean kondenatuen (gaztelaniaz *encartados*) babesaren lurraldetik datorrela esaten dute.

Kantabriako enkarterriarrak

Enkarterriko bihotzean Kantabriako administrazioaren menpean dagoen udalerrri bat topatzeak atentzioa ematen dio bisitariari. Hauxe da Valle de Villaverde herriaren kasua; izan ere, orain ez asko, Villaverde Turtzioz-etik Valle de Villaverde –era mudatu baitiote izena herriari, Turtzioz alberriarekin nahasterik ez izateko. Ez da kasu bakarra Euskal Herrian, han-hemenka ditugu Urduña, Trebiño, Petilla de Aragón eta Baztanek.

XII. mendean Villaverde Turtzioz Bizkaira batu zen, eta hurrengo hiru mendeez Enkarterriko gainontzeko haranek erabili zituzten eskubideak eta onurak gozatu zituen.

XIV. mendearen bukaeran, Avellaneda abizeneko leinu boteretsua Villaverdeko haranaz jabetu zen, Bizkaiko Jaunari esker, Aljubarrotako borrokan esku hartzeagatik. 1440. urtean, Diego Avellanedak Pedro Fernández Velascori, Haroko kondea, saldu zion harana milioi erdi marabediren truke. Hala, Villaverde Bizkaiko Jaurerriko Enkarterritik bereizi zuten eta Gaztelako Kondestablearen Jaurerriko lurralde bihurtu zen.

Baina Villaverdeko haranak jarraitu egin zuen Avellanedako baztarretara joaten, nahiz eta berba-eskubidea eta botoa galduak izan. Izan ere, zenbait libertate eta eskubide, saldu aurretikoak, gorde ahal izan zituzten. Ondorengo denboretan, haraneko herriak behin eta berriro aldarrikatu zuen bere jatorria, batez ere, auzi ekonomikoak

zirela medio. XVII.aren lehen erdian, Gesaltza Añana eta Salinas de Rocioko gatzagetako administratzaileak bere gatzua erosarazi nahi izan zuten Villaverdekoei, eta hauek erregearengana jo zuten. Monarka enkarterriarren alde agertu zen beren jatorri bizkaitarragatik eta pres-tasunagatik erregearen zerbitzuan. 1832an, Espainia probintziak zatitzeko erreformaren garaian, Villaverdeko herriak ahaleginak eta bi egin zituen Bizkaiaren barruan egon zedin; baina ahalegin guztiak alferrikakoak izan ziren, Lehenengo Karlistaldia piztu baitzen eta Haranaren jabeak, Santanderreko Velasco familiak, aginpide handia baitzuen.

Enkarterriko forua

Enkarterrietako Forua antzina Bizkaiko eskualdean lege ziren bi liburuko sistema da. 1394an lehendabiziko Forua edo Foru Zaharra idatzi zuten; bestea, berriz, 1503. urtean idatzi zuten. Foruak arlo konstituzionaletan ez ezik, arlo zibil eta kriminaletan ere arauak ematen zituen.

Enkarterri zuzentzen zuen Usadio eta Ohituren Forua 1394an idatzi zuten, hau da, Bizkaiko Foru Zaharra idatzi baino lauogeita hamazortzi urte lehenago. Lehendabiziko Enkarterrietako Foruak, Korrejidorea Gonzalo Moro zela idatzia, 45 artikulua edo atal zituen. Idazteko Bizkaiko usadioa zen oinarria, zenbait atal moldatu behar baziren ere eta zenbait atal zibil erantsi behar baziren ere. Idatziaren Foruak Abellanedako Batzarraren nagusitasuna irmo finkatzen zuen, erakundea Enkarterrietan botere legegile bakarra eta legeak azaltzen zituen bakarra baitzen. Foruak enkarterriarrak epaitzeko eskubidea Abellanedako tenienteak eta alkate nagusiek baino ez zutela finkatzen du, hau da, ez dago kanpoko auzitegirik enkarterriarrak epaitu deza-keenik, honek Gernikako Batzarrarekin eta Korrejidorearekin liskar-rrak sortu zituen.

Forua hain gogorra izanda, 1503. urtean, aldatu egin behar zuela erabaki zuen Francisco Pérez Vargas Korrejidoreak.

Foru Berria bitan zatituta dago: alde batetik Bizkaiko Enkarterriko Foru Zaharra edo *Fuero Biejo de Las Encartaciones de Vizcaya*, eta bestetik Erabakimen Forua edo *Fuero de Albedrío*. Enkarterriko Foru Berria eta Bizkaiko Forua oso antzekoak dira. Foru Berria, zaharra ez bezala, Gaztelako erregeek ez zuten zin egin, baina berez Enkarterrietako lege nagusia zen.

Foru berriak ez zuen luzaro indarrean iraun. 1574an, Abellanedako Batzarrean elkaturik, Enkarterriko ahaldunek 1526ko Bizkaiko Forua errespetatzea erabaki zuten. Erabaki honek eztabaida luzeak ekarri zituen, baina 1576ko abuztuaren 30ean Bilbon eskritura publikoa sinatu zuten Bizkaiko Forua aukeratzeko. Harrezkero, Enkarterriko foru bi izan ditu, baina Enkarterriko Forua dokumentu bat baino ez zen.

Bizkaia eta Enkarterri, harreman historiko korapilotsuak

Avellanedako gobernu-batzordeak behin baino gehiagotan uko egin zion Gernikako batzorde nagusiekin bat egiteari, esaterako, 1628an eta 1629an. Avellanedako batzarkideak ez ziren ados jartzen Gernikako batzarretan sartzeko, ez aho batez, ez gehiengo soilaz.

Gauzak horrela, zenbait enkarterriar udalbatzek euren kabuz sartzeari erabaki zuten: lehenengoa Gordexola izan zen 1642an; bigarrena, Gueñes; hirugarrena, Zalla, 1668an; gero, Galdames, 1672an, eta geroago, Somorrostroko hiru kontzejuen errepublika. Baina, 1738an, gastuen banaketa dela medio, enkarterriar errepublikek, batera erabakita, hautsi egin zuten Bizkaiko jaurerriarekin. 1799an, Somorrostroko haraneko zazpi kontzejuak eta Gordexolako eta Karrantzako haranak Gernikako batzarrera batu ziren. Hurrengo urtean, Gueñes, Turzioz, Galdames, Zalla, Artzentaletan eta Sopuerta ere elkartu ziren.

1804tik aurrera, enkarterriar errepublika guztiek Gernikako batzarretan parte hartu zuten gainontzeko batzarkideen eskubide eta betebeharrak berekin.

Enkarterriko autonomia estatutu baten proposamena

1931ko uztailaren 18an Portugaleteko udalak, batzarturik, erabaki zuen Enkarterrik –arrazoi historikoak, geografikoak eta usadiozkoak tarteko– eskubidea osoa zuela bere burua gobernatzeko, eta gai hau eskualdeko gainontzeko udalerriekin jorrazteko deia luzatu zuen. Hurrengo hilean Sopuertan hainbat udal-ordezkarik bildu ziren Enkarterriko Autonomia Estatutu bat osatzen hasteko. Mugimendu hau guztia, bertan behera geratu zen Lizarrako Estatutua Konstituzioaren kontrakotzat hartu zutenean.

1.3. Zenbait zenbaki

Udalerrria	Alkatea	Biztanleria	Biztanleria %	Hedadura km ²
Zalla	EAJ	8143	26,30	31,03
Balmaseda	EAJ	7168	23,15	22,3
Gueñes	EAJ	6328	20,44	41,49
Karrantza	EAJ	2836	9,16	137,70
Sopuerta	EA	2439	7,88	42,80
Gordexola	EAJ	1658	5,35	41,50
Galdames	EAJ	841	2,72	44,50
Artzentales	EAJ	692	2,23	36
Turtzioz	EAJ	556	1,80	31
Lanestosa	EAJ	305	0,98	1,20
Enkarterri	EAJ	30966	100	429,52

EUSTAT-2006

	Guztira	Ama-hizkuntza				Etxeko hizkuntza			
		Euskara	Gaztelera	biak	Beste bat	Euskara	Gaztelera	Biak	Beste bat
Bizkaia	1.136.852	149.551	912.742	45.349	29.210	100.345	955.692	68.303	12.512
Kantauri Aiala.	33.678	1.557	30.294	1.154	673	901	31.123	1.320	334
Enkarterri	30.500	612	28.662	575	651	423	29.163	574	340
Portzentajeak	2,68	0,40	3,14	1,26	2,22	0,42	3,05	0,84	2,71

2 urte edo gehiagoko biztanleria lurraldeka eta euskararen maila orokorra. 2006

	Guztira	euskaldunak	Ia-euskaldunak	erdaldunak
Bizkaia	1.108.209	347.302	225.238	505.669
Kantauri Arabarra	32.818	8.763	7.982	16.073
Enkarterri	29.701	5.998	6.361	17.073

Enkarterri	Euskaldunak	Kantauri Arabarra
309	1981	1441
511	1986	3002
1233	1991	4258
2766	1996	6791
3783	2001	7065
5998	2006	8763

Euskara etxeko hizkuntza

	Karrantza	Gordexola	Gueñes	Zalla	Balmaseda	Alonsotegi	Galdames	Lanestosa	Sopuerta	Turtzioz	Artzentales
1991	0	11	11	10	7	10	0	0	2	0	0
1996	4	4	9	15	6	15	0	0	6	1	0
2001	7	18	16	54	8	25	3	0	15	0	16
2006	35	26	77	114	67	50	14	4	32	4	29

Euskara etxeko hizkuntza

	Muskiz	Portugalete	Trapagaran	Santurtzi	Ortuella	Sestao	Zierbena	Barakaldo
1991	16	211	34	134	12	48	3	143
1996	28	251	23	155	17	66	7	213
2001	41	312	41	270	19	131	15	312
2006	103	498	140	464	83	418	34	682

1.4. Zallako sarrera

Gaur egun, Zalla udalerria Enkarterriko herririk populatuena da, 8143 biztanle ditu erroldaturik eta 2000 gehiago ez dira ageri erroldan, guztira 10143 bizilagun. Eskualdeko biztanleriaren % 26,30 bizi da Zallan. Enkarterriko herri nagusia dela esan genezake, populua eta jarduera ekonomikoa kontuan harturik. XIX.aren bukaeran heldu zen Zallara industrializazioa, *Papelera Española*, *Fábrica de Papel de Fumar* eta *Sociedad Eléctrica Urrutia* fabrikak zabaldu zituztenean. *Papelera Españolak*, batez ere, hazkunde demografiko ikaragarria eragin zuen herrian, baita inguruetan ere. Nekazaritzatik bizi zen herria langileen herria izatera pasa zen urte gutxian.

2. ZALLAKO INSTITUTU PUBLIKOA

2.1. Zalla BHI

Bada bigarren hezkuntzako ikastetxe publikoa. 156 ikasle inguru edukitzen ditugu. D ereduia besterik ez dugu duela 5 urtetik hona. Irakasleria osoa euskalduna da, idazkaria, atezainak euskaldunak, jantokizainak euskaldunak. Gurasoekiko harremanak eta eskola kontseilua kenduta, normalean euskaraz funtzionatzen dugu maila guztietan, ikastetxeko jarduera guztietan.

Gure ikastetxean 2 urtetan Nolegako mintzagrama azterketa egin genuen eta emaitzak hauexek izan ziren:

2000-2001 ikasturtean

Agerpena eta ezagutza	% 58,06
Erabilera indizea	% 51,99

2005-2006 ikasturtean

Agerpena eta ezagutza	% 66,22
Erabilera indizea	% 42,54

Gertaera bitxia: ezagutza handitu da % 8, hala eta guztiz ere, erabilerera % 9 jaitsi da. Bere garaian irakasleok komentatu genuen hasierako egoeran A eta D ereduak zeudela eta, orain denak direla “D” eredukoak, baina ez daukatela lehengo euskaraz egiteko kontzientzia edo gogoia.

2.2. Galdekizuna

Galdekizun txiki bat luzatu genien ikasleei euskarari buruzko galdera batzuk erantzun zitzaizkien, guk erabili ditugun datuak eurek emandakoak dira, nolabait, euskaraz zenbat egiten duten, norekin, portzentaia, zenbat irakurtzen duten eta abar..... haien apreziazioak dira, haien balorazioak edo neurriak dira euren buruz eta euskarari buruz egindakoak.

Beraz, kontuan hartu ikasleek eurek egiten dutenari buruzko iritzi subjektiboak eta pertsonalak direla, ez dago, hortaz, objektibotasunik arlo batzuetan.

2.3. Emaitzak

1. Gurasoak.

Gure ikasleen % 15,6ren guraso biak euskaldunak dira.

 % 0,4ren aita bakarrik da euskalduna.

 % 25ren ama bakarrik da euskalduna.

 % 59ren gurasoak erdaldunak dira

2. Familian baten batekin euskaraz zerbait egiten dutenen kopurua

Gure ikasleen % 68k zerbait egiten dute familiakoren batekin

 % 32k ez dute batere egiten familiakoen artean

3. Ikasleen txikitako hizkuntza

Gure ikasleen % 7,6k euskara soil-soilik dute ama hizkuntza

 % 17,3k euskara eta gaztelania biak nahastuta,

% 72k gaztelania soil-soilik dute ama hizkuntza

% 3k errumaniera eta portugesera.

4. Euskararen ekoizpena ikastetxean.

Ikastetxean klasean egiten dute gehien bat. Irakasleekin eta irakasle-
en aurrean gehien bat. Normalean euskaraz erantzuten dute, badago,
hala ere gero eta handiagoa den joera, irakasleari erdaraz erantzutekoa.

5. Euskararen ekoizpena kalean

Gure ikasleen % 34k zerbait egiten dute kalean, gehien bat fami-
liakoekin.

Gure ikasleen % 24k esaten dute euren bizitzan euskararen ekoiz-
pena % 50ekoa baino gehiagokoa dela.

6. Ikastetxetik kanpo euskaraz zerbait irakurtzen dutenen kopurua

Gure ikasleen % 55ek irakurtzen dute beste zerbait klasean agin-
tzen denaz gain.

7. Musika euskaraz entzuten dutenen portzentaia

Gure ikasleen % 58k entzuten dute musika euskaraz.

8. Ea euskara gustuko duten ala ez

Gure ikasleen % 17ri ez zaie gustatzen euskara.

9. Inori egiten diozun zure bizitzan euskaraz

Gure ikasleen % 85ek egiten diote norbaiti euskaraz.

Gure ikasleen % 15ek ez diote inori egiten. Portzentaia honek,
gutxi gorabehera, kointziditzen du euskara gustuko ez dutenen zen-
bakiarekin.

% 85 hauei erantzuten diote euskaraz % 76k, eta erdaraz erantzuz-
nez gero %57k jarraitzen dute euskaraz, besteak erdarara pasatzen
dira.

10. Hurrei zer egiten diezu?

Gure ikasleen % 30ek egiten diete hurrei euskaraz
% 20k egiten diete batzuetan euskaraz
% 50k egiten diete umei erdaraz

11. Zure seme-alabei zer egingo diezu ?

Gure ikasleen % 64k euskaraz egiteko asmoa dute
% 18k euskaraz batzuetan egiteko asmoa dute
% 18k ez dute euskaraz egiteko asmorik.

12. Euskalkirik ezagutzen duzu?

Gure ikasleen % 38k bizkaieraren ezagupen batzuk dauzkate.
% 20k gipuzkeraren ezagupen batzuk dauzkate.
% 0,5ek nafarreraren ezagupen batzuk dauzkate.

13. Zer da euskara zuretzat?

68 ikaslek euskara **hizkuntza bat edo beste hizkuntza bat** dela adierazi dute.

16 ikaslek **Euskal Herriko hizkuntza** dela adierazten dute.

13 ikaslek **gure hizkuntza** dela adierazi dute.

9 ikaslek **nire hizkuntza** dela adierazi dute.

6 ikaslek **hizkuntza polita** dela adierazi dute.

5 ikaslek **euskaldun egiten gaituena**.

4 ikaslek **hizkuntza zaharra**.

Beste batzuk: **gure identitatea, hizkuntza zaila, arraroa, interesgarria, hizkuntza eta pribilejioa.....**

Zenbat eta zaharragoak izan ikasleak (14-16 urte), beste konzientzia bat daukate eta beste hitz batzuk hasten dira erabiltzen: Euskal Herria, gure hizkuntza, gure identitatea, euskaldun egiten gaituena.....

Hasierako mailetan (12-14 urte) gehiago dira adjektiboak: arraroa, hizkuntza zaila, eskolako hizkuntza.....

14. Zergatik ez duten hitz egiten euskaraz

Ikasleek gehien azaltzen dituzten esaldiak edo emozioak honako hauek dira:

Negatiboak:

“**arraro** sentitzen naiz eskolatik kanpo euskaraz hitz eginez”

“**lotsa** ematen dit besteak erdaraz eta ni euskaraz”

“**pringau** bat zarela pentsatzen dute”

“**besteek txarto** begiratzen dizute”

Gehien errepikatzen direnak dira lotsa eta arraroa.

Positiboak

“**normal** sentitzen naiz”

“**euskaldunago** sentitzen naiz”

“**poza** sentitzen dut”

“**oso ondo** sentitzen naiz nire hizkuntza delako”

Hala ere, gehixeago dira lotsati eta arraro sentitzen direnak besteak baino. Baina ez pentsa, nahiko orekatuta dago. Dena den, ez dago indarririk ikasleek euskaraz hitz egin eta euskaraz mantentzeko gaztelaniaz hitz egiten ari direnen aurrean.

2.4. Ondorioak

1. Printzipioz pentsatu beharko genuke **ikastetxeko ikasleen % 15ek euskaraz egiten dutela etxean**, alegia, etxeko hizkuntza euskara dela. Hala ere, ezagutzen ditugun kasu batzuetan gurasoak euskaldunak izanda ere, bikotearen arteko hizkuntza ez da euskara. Beraz, praktikan, gutxiago da etxean euskaraz normaltasunez hitz egiten dutenen ehuneko.

Bitxia iruditu zaigu ikastetxeko ikasleen %0,4ren aitak bakarrik jakitea euskaraz. Euskalduna ama bakarrik dutenak % 25 dira, ordea. Ezaguna denez, amaren eragina askoz ere handiagoa da aitarena baino. Jakin badakigu etxe batzuetan ama euskalduna izanda, seme-alabek oso ondo dakitela eta egunero praktikatzen dutela.

Beraz, gure ikastetxera datozenen % 40 maila batean edo bestean etxetik euskara jakinda datoz, behintzat euskara etxean entzunda.

Zehatzago ikusteko gogora ekar ditzagun ama hizkuntzaren datuak:

% 7,6k euskara ama hizkuntza

% 17,3k euskara eta gaztelania ama hizkuntza.

Honen arabera, % 25 etortzen zaizkigu euskara soilik jakinda edo gaztelaniarekin nahastuta.

2. Gure ikasleen % **68k familiakoren batekin zertxobait egiten dute**. Hortaz, ikastetxetik kanpo, haien bizitza pertsonalean euskarak badu lekutxo bat, 4 hitz badira ere. Beste guztiek, % **32k, familian ez dute inongo erreferentziarik**. Euskara klaseko hizkuntza da.

3. Gure ikasleen % **34k egiten dute zerbait euskaraz kalean, gehien bat familiakoekin**. Neurri txikiago batean “lagun batzuekin” aipatzen dute, baina errealitatea da oso bakanak direla kalean euskaraz hitz egiten duten gazteak Zallan.

4. Ehuneko baten zenbat euskara egiten duten galdetu diegunean euren bizitzan, %24 dira ehuneko 50 baino gehiago egiten dutela esaten dutenak.

Dena den, gehien bat ikastetxean egiten dute.

5. Gure ikasleen %55ek euskaraz irakurtzen dute libururen bat, aldizkari edo egunkariren bat urtean zehar. Nahiko datu alai, neurri

batean nahikotxo jendek irakurtzen duelako euskaraz zerbait. Dena dela, % 45ek ikastetxean agintzen dena irakurtzen dute eta kitto!

6. Musika euskaraz, gure ikasleen % 58k entzuten dute euskaraz, eta gainera, asko, asko gustatzen zaie euskaraz kantatzen den musika.

Oso bide ona da euskara haien munduan sartzeko, lotura positiboa iruditzen zaigu euskarazko musika euren berezko gustuen barruan sartzea.

Dena den, % 42k ez dute ezertxo ere, edo oso gutxi, entzuten.

7. Euskara gustatzen ez zaien kopurua % 17 dira. Gainerako % 83ri gustatzen zaie. Herri euskaldun batean izanez gero, ez luke eragin handirik izango. Gure kasuan, ordea, ez da bat ere lagungarri euskaraz hasi nahi duen batek jaso dezakeen erantzun desatseginarean eragina.

Impresioa da gurasoengandik datorrela jarrera hau, gainera, sozialki arazo gehien daukan arlotik etortzen dira.

Jende hau erakarri egin behar dugu eta euskara interesgarri eta dibertigarri izan daitekeela adierazi behar diegu.

Beraz, gure ikasleak euskaldun dira, neurri batean pasiboak, ehuneko handi batean (%85) prest daudenak edo irekita daudenak euskaraz hitz egiteko inguru euskaldun batean.

Kezkagarria da gaur egun haurrei beti %30ek eta batzuetan %20k bakarrik egitea gure ikasleek. Azken finean, gaur eguneko haurrek nagusiagoak direnean gauza bera errepikatuko dutelako, alegia, ez badago kontzientzia edo inguru aldaketarik, gaur eguneko haurren erdiek baino gutxixeagok egingo diete etorkizunekoiei.

Bestaldetik, datu baikorragoa da gure ikasleen % 64k euren seme-alabei euskaraz hitz egiteko asmoa daukatela, beste 18k euskara eta erdara erabiltzeko asmoa adierazten dute, datu positiboa da zeren eta behintzat zabalik daude euskaraz egitera.

Kezkagarria da, kasu honetan, %18k ez dutela euskaraz egiteko inolako asmorik nahiz eta euskaraz jakin.

Zenbaki honek, %15-%18, kointziditzen du euskara gustuko ez dutenen zenbakiarekin, euskaraz inori ere egiten ez diotenen zenbakiarekin.

2.5. Nola transmititzen da euskara gure zallako zatian?

Bide bi daude Zallan euskararen transmisioan

1. **Familia.** Agian gehiegi esatea da, baina erantzunek adierazten dutenaren arabera, % 40 euskaldun edo euskaraz nolabait jantzita etortzen zaizkigu.

2. **Ikastetxea.** Ikastetxeak euskaldundu behar ditu goitik behera beste **ehuneko 60**, goitik eta behera. Hauetako %17k gustuko ez dutenez, lan xamura ez da.

Begien bistakoa denez, garrantzizko erantzukizuna dauka ikastetxeak euskararen transmisioan eta irakasleok, horko partaide zuzenak, zeresanik ez!, bi lan egin behar ditugu, nire ustez, Zalla bezalako herri batean:

1. Bere irakasgaia euskaraz modu egokian irakatsi.
2. Ikasleekin klaseko eta klasez kanpoko elkarrizketen bidez nolabaiteko komunikazio natural batera jo. Honela, ikasleak euskararen egunero modu integralean komunikatzeko balioaz jabetuko lirateke. Alegia, gure betebeharrak komunikatibo guztiak lortzeko balio du gure euskarak.

Lan hau egiten gure ikastetxeari laguntzen dioten elkarrekin hauek dira:

Nolega: ikastetxean daukagun Normalkuntzako programa eta gure Berritzeguneko euskara teknikaria (Markos Bilbao)

Enkarterriko Mankomunitateko euskara saila (Lorea Otxoa)
Ikastetxeko gurasoen elkarte
Zallako udaleko kultur saila eta gazte plana

Zallan euskaraz bizitzeko lagungarri ditugun elkarteak

Aipatutakoez gain
Txotx euskara taldea.
AEK-ko euskaltegia
Zallako bertso eskola:

Aipatzekoa da orain dela 8 urte sortu zen Zallako bertso eskola. Lehenengoz 2008an egin zen Enkarterriko bertso txapelketa bat **Enkarterriko bertsolariek osatua**. Ereindako haziaren ondorio pozgarria.

HABE-ko euskaltegia
Berbalagun taldea

2.6. Nork bere euskarari eutsi. Lehenengo atala

Aspaldiko kezka da irakasleontzat euskarak bete beharko lituzkeela, normalizazio bide honetan, gure komunikazio beharrian guztiak maila guztietan.

Ikastetxean, gutxi gorabehera, hizkuntza formala garatzeko gaitasuna badaukate gure ikasleek. Arlo askotako ezagutzak jasotzen dituzte eta euskara batuaren bidez adierazi ahal dituzte kontzeptuak, ideiak, edukiak, eragiketa matematikoak.....

Hutsune handiena, ordea, ikasleen sentimendu, emozio, haserre, amorru, amodio...arlotan dago. Gure ikasleentzako ez da baliagarria euskara, inork ez dielako erakutsi biraoak botatzen, nola ligatu, azken finean, lagun arteko hizkera.

Argi dago lagun arteko hizkera hori hizkuntza bizitik hartu behar dela, nondik edo zeinengandik, baina, hemen Zallan? Bizkaieratik?, gipuzkeratik?, hi! txo!, aiskiria!??

Nahiz eta galdera hauek agian era egokienean erantzun ez, hutsune hau betetzeko zenbait ekintza egiten ditugu:

1. Lagun arteko hizkera lantzeko saioak antolatzen ditugu gure ikastetxean, horretarako Mankomunitateari esker, Urtxintxa eta Ttakun taldeetako begiraleak ekartzen ditugu eurek saioak gauza ditza-ten DBH 2. mailan.

2. Ahozotasun saioak Bizkaiko bertsolarien elkarteak antolatuak eta Mankomunitateko diruari esker garatuak. Astean behin etortzen da DBH 1. mailako klase guztietara Bizkaiko bertsolarien elkarteko irakasle bat.

3. Arratiako trukaketa. Hurrengo atalean garatuko dudana.

2.7. Arratiako trukaketa

Kezka honek eraginda hasi ginen bilatzen trukaketarako beste ikastetxe bat, gure ikasleek beren adineko beste ikasle batzuekin euskaraz harreman naturalak edukiz euskara fresko, interesgarri eta erabilgarria aurki zezaten.

Hurrengo puntua zen “nora”?

1. Hizkuntza bizia, gazteek normalean euskara egiten zuten inguru-
rua.

2. Hizkuntza ulergarria, gure batuera maitagarrian ulertzeko moduko euskara. Ondarrura edo Lekitxora joanda, gure ikasleek agian arazo handiak edukiko zituzten ulertzeko horko euskara. Alegia, klasean ikasten dutenak ez dauka zer ikusirik horrenbeste “xxxxxx” edo “dj,dj,dj,dj” ahoskatzen den hizkuntzarekin.

3. Nolabait Zallatik hurbil egon behar zen, edo erdi bidean, erla-
zio natural horiek naturaltasunez loratzeko. Beraz, Markina, Duran-
go eta inguru hori urrun!

4. Arratia! Arratia zen nahiko hizkuntza ulergarria zuena, nahiko hurbil zegoena Bilbotik eta gugandik, ibaia zeharkatu gabe, nahiko euskalduna den lehen lurraldea.

Joan ginen, perfektua ez zen izan. Gure ikasleak harriduraz bizkaierarekiko lehen kontaktuarekin.

Zer da eurek? Gagoz? Aitu? Dozuz? Ingu?

Arratiara joan baino lehenagoko egunetan euskal azentuaz ohar pare baten gainean aste oso bateko matxake iraukor baten ondoren lortu nuen ikasleek esatea “euskalduna naiz” eta ez “euskaldúna naiz”.

Arratiara heldu eta hara non, handik gutxira, nire ikasle bat etorri esaten “ - Arratiar hauek esaten dute “euskaldúna naz”. Nire aspaldiko irakasle euskaldun berriaren autoritatea zalantzetan gelditu zen, ezin esan Arratiarrek azentu berezia daukatela.

– Lasai hartu! Arratiar hauek batzuetan arraroak dira, baina majoak, zuk egin euskaraz! Tira! –erantzun nion ikasleari inolako azalpen zientifikorik eman gabe.

Esperientzia hau oso positiboa izan da, azken 7 urte hauetan urteror hara joan gara eta beti oso ona izan da gure ikasleentzako arrazoi askogatik:

- inguru euskalduna ezagutu dutelako
- euskalgintzan askoz gehiago mugitzen diren beste ikasle batzuekin elkartu direlako
- Jakin badakigulako haiek gero gure trukaketa honetatik kanpo Bilbon gelditu direla pote batzuk edateko
- Euren adinako gazteengandik jasotzen dutelako informazio interesgarria edo balio duen eredia eta ez irakasle heldu batzuegandik

Urtero DBH 4. mailako 16-20 ikaslerekin joaten gara hara! Giro euskaldun batean gure ikasleek euskaraz egiten dute. Eta bidaian

zehar ere euskaraz egiten dute. Normalkuntzan gabiltzanontzat betetzen ari den amets zati bat. Agian egun batean posible izango da, ondo motibatzen baditugu, gure ikasleek Zallan euskaraz hitz egitea.

2.8. Nork bere euskarari eutsi. 2. Atala edo zein den Zallako euskara

Gauza guzti hauek kontuan hartuta uste dut hobeto erabaki deza-kegula zein den Zallako euskara.

Gure ikasleen % 38k ezagutzen dute bizkaiera, gure inpresioa da maila ezberdinetako ezagupenak daudela, baina denek ez dutela bizkaiera ondo ezagutzen.

Gure ikasleen % 20k ezagutzen dute gipuzkera, hemen ere esan beharko genuke maila ezberdinetako ezagupenak daudela, jende gutxi menperatuko du gipuzkera, baina badira berez guraso gipuzkoar-rrak dauzkatenak, gezurra ere ez da izango.

Arratiara joan baino lehen erabaki genuen bizkaieraren oinarritzko ezagupen batzuk erakustea klasean. Arratiako trukaketa dela eta pentsatzen dugu komenigarria dela ikasleei bizkaieraren forma batzuk irakastea, hain arrotz gerta ez dakien hain hurbil daukaten euskalkia.

Historikoki ere, Irene Hurtado Mendietak bere artikulu batean dioenez, Enkarterriko euskara, hain aspaldi galdu ez zen euskara, bizkaiera zen, azpieuskalkia agian. Alonsotegiko berriemaile euskaldun batek –Engrasi Etxebarria Artibarrak– 1997an egindako elkarrizketan bizkaieraz egiten zuen. Bai polito be!

Euskara irakasleok zera erabaki genuen urtero leku aldaketak egiten badira ere:

1. Ahal den neurrian, bizkaieraz dakienak klasean noizbehinka sartzea edo hitz egitea, naturaltasun osoz.

2. 3. eta 4. mailan bizkaieraren ezagupen batzuk irakastea, nola-bait, gure programazioaren barruan bizkaiera ere apurtxu bat sartzea. Aitzakia dugu Arratiako trukaketa modu motibagarri batez ikasteko ikasleek.

Zertan oinarritu behar gara Zallako euskara egiteko?

Gurasoek, aitak, amak, familiakoek egunero egiten duten euskaran, gehi irakasleok irakasgaietatik kanpo eta barruan egiten dugun euskaran, gehi ikastetxean praktikan egiten dugun euskara batuan, gehi ikastetxean bizkaieraz teorikoki irakasten dugun euskaran, gehi Arratiako ikasleen euskaran, gehi Zallara euskaraz ekintza kulturalak egitera etortzen direnen euskaran, gehi banketxeetan, dendetan, supermerkatuetan, gasolindegian, azokan, udaletxean, tabernetan, anbulategian, medikuen kontsultan, egunkari saltzailearen euskaran, gehi guztiok dugun maitasunean eta bihotzez egiten dugun euskaran gorpuztu beharko dugu gure Zallako euskara martxoso, mozkorti, poeta, borrokalaria, kontserbadorea, tristea, alaia, edozein adjektiboz jantzitakoa. Eta, moldakorra, batez ere. Moldakorra, edozein egoeratarata moldakorra, momenturo aldatzen ari den bizitza bezalakoa.

Eta horixe izango da gure Zallako euskara, Zallako biztanleek euskaraz bizi izandako bizipenez osatua.